

# DARRIGOLEN GRAMATIKAZ

Ricardo Gómez  
(UPV/EHU eta JUMI)

## Abstract

*This article presents the main grammatical ideas expressed by Jean-Pierre Darrigol (1790-1829) in his Dissertation critique et apologétique sur la langue basque. Darrigol's starting point is a logicistic analysis of the Basque language, whose clear antecedents can be found in the French general grammar of a rationalistic orientation (e.g., Girard, Du Marsais, Beauzée...). Within that perspective, he presents (or retakes) proposals such as the existence of the indefinite as a separate number, a case system which is conceived as different from the Latin model, the idea that there are only two real verbs (niz 'to be' and dut 'to have'), and the typological implications of combining a freer word order together with the existence of declension in the language, among others.*

## 1. Sarrera\*

Euskalari guztiek ezagutzen dute, izenez bederen, Darrigol apaizak XIX. mende hasieran idatzi zuen euskal gramatika (Darrigol 1827). Gutxiagok dakite, ziurrenik, gramatika hori —edo, hobeki esanda, haren beste bertsio bat— 1829an Parisen euskal gramatikaren analisiari buruzko sari baten irabazle suertatu zela. Jean-Pierre Darrigol Lehuntzen jaio zen 1790eko maiatzaren 17an.<sup>1</sup> Haurtzaroa Logroñoan igaro ondoren, Akizen ikasi zuen eta 1815ean apaiztu zen. Donibane Garazin eta Baionan bikario gisa jardun zuen; Jatsun eta Haltsun, erretore gisa. 1818tik Teologia irakatsi zuen Bétharram-en, baina berehala aldatu zen Baionara, bertako Apaiztegi Handian Moraleko katedra eman baitzioten, 1825etik, Apaiztegiko *supérieur* izendatu zuten. Baionan hil zen 1829ko uztailaren 17an.

Darrigolen *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* Baionan argitaratu zen, baina urterik azaldu gabe. Nolanahi ere den, eskuarki 1827ko data eza-

---

\* Artikulu honek *ALT Inaugural Meeting / Koldo Mitxelena I. Jardunaldiak* biltzarrean (Vitoria-Gasteiz, 1995eko irailak 7-10) Frans Plank (Universität Konstanz) irakaslearekin batera aurkeztutako «The Abbé Darrigol: Basque and Typology» komunikazio argitaragabea du abiapuntu (Gómez & Plank 1995). Hemen aurkezten dudan testua, halere, ordukoaren euskarazko bertsio oso zabaldua da eta nire doktorego-tesiaren (Gómez 2007a) kapitulu emendatu bati dagokio. Lan hau BFF2002-03132 eta HUM2005-08047 ikerketa proiektuen babespean burutu ahal izan da.

<sup>1</sup> Darrigolen bizitzaz, ik. L. Dassance (1922), P. Dassance (1842) eta Vinson (1891-98: 282).

rri zaio<sup>2</sup> eta badirudi lehen aldiz Vinsonek (1891-98: 281) proposatu zuela urte hori; izan ere, Darrigolek hitzaurrean Lécluse-ren gramatika aurreko urtean argitaratu zela aipatzen du eta Lécluse-ren *Manuel* 1826an atera zen:

On sait que M. Lécluse s'occupe du basque depuis environ deux ans et qu'il publia l'année dernière un manuel de cette langue, fruit précoce d'un esprit méthodique et pénétrant (Darrigol 1827: v)

Baina Vinsonek beste bi datu ematen ditu: lehena, lanaren iragarki bat argitaratu zela Parisko *Moniteur Universel* egunkarian 1828ko abuztuaren 9an eta, bigarrena, Darrigolek Parisko sariketara aurkeztu zuen txostena liburuaren garapena zela: «Le mémoire de l'abbé Darrigol était le développement de son livre» (Vinson 1891-98: 282).<sup>3</sup> Lehenago oraindik, beste artikulua batean, ber gauza idatzi zuen: «Cet ouvrage fut la base d'un mémoire auquel l'Institut décerna en 1830 le prix Volney» (Vinson 1868: 10). Eta badago, azkenik, beste datu lagungarri bat: 1984ko edizioan Vinsonen bibliografia laguntzen duten Urquijoren oharretan ez da kontrarik azaltzen.<sup>4</sup>

Artikulua honelaxe egituratzen da: hasteko, Darrigolen gramatika-lanaren egitura (§2.1) eta zenbait ezaugarri orokor (§2.2) azalduko ditut; ondoren, gramatikaren edukiaren zenbait gai aztertuko ditut (§3): euskal erro eta kategorien zehaztugabetasuna (§3.1), deklinabide-paradigma mugagabea (§3.2), kasu eta preposizioak (§3.3), aditza (§3.4) eta sintaxia (§3.5). Amaitzeko, ondorioak azalduko ditut (§4).

## 2. *Dissertationen* egitura eta ezaugarri orokorrak

Hurrengo lerroetan Darrigolek euskal gramatikaren azterketari egindako ekarri nagusiak laburtuko ditut. Aldi berean, ekarpenok euskal gramatikagintzaren historian kokatzen ahaleginduko naiz. Horretarako, dena dela, 1827ko *Dissertation* bakarrik izango dut aztergai, 1828ko txostena (Abbadieren kopiari esker ezagutzen duguna) hurrengo baterako utziz.<sup>5</sup> Lanaren egitura eta ezaugarri orokor batzuk aurkezten hasiko naiz.

### 2.1. Egitura

Darrigolen gramatika, segurki solasaldi moduan (*dissertation*) aurkezten delako, ez dago atal edo kapitulutan banaturik. Hala eta guztiz ere, irakurketa arretatsu batek aise bereiz ditzake zenbait zati, hurrengo eskema honetan erakusten den legez:

<sup>2</sup> Nik dakidala bederen, beste datazio bat eman duen bakarra —1829 hain zuzen ere, baina inolako azalpenik gabe— Anderson (1973) izan da.

<sup>3</sup> 1829ko Volney Sariketaren inguruko xehetasunetarako, ik. Gómez (2003).

<sup>4</sup> Hala ere, Gómez & Plank (1995) lanean Andersoni jarraitu nion, azaldu berri ditudan datuei erreparatu gabe, eta artean oker uste bainuen liburuak, besterik ezean, eskuizkribuaren ondokoa izan behar zuela.

<sup>5</sup> Funtsean, oso antzeko edukia duten arren, badira diferentzia batzuk eta interesgarria litzateke, edonola ere, Darrigolek liburutik txostenera egin zuen laburpen zuzenduan zer kendu eta zer aldatu zuen xeheki miaztea. Horretarako, aurki bi testuen edizio konparatu bat prestatzeko asmoa dut, Volney Sariketara aurkeztu ziren gainerako gramatikekin batera.

- Hitzaurrea: gramatika unibertsala eta gramatika orokorra; lanaren laburpena.
- Fonologia:
  - letrak eta ahoskera: 1-16.
- Morfologia:
  - erroak: 16-18.
  - erator morfemak: 18-21.
  - perpaus-atalak: 22.
- Izen morfologia:
  - zenbait etimologia: 22-39.
  - generoa: 39-43.
  - numeroa: 43-58.
  - deklinabidea: 58-86.
- Adberbioak: 86-88.
- Juntagailuak: 88-89.
- Aditz morfologia:
  - aditz bakarraren teoria: 89-93.
  - adizki jokatu gabeen egitura: 93-107.
  - egiazko bi aditz: 107-111.
  - moduak: 111-114.
  - denbora-sistema: 115-118.
  - aditz perifrastikoen paradigmak: 118-137.
  - adizki trinkoak: 137-142.
- Sintaxia:
  - komunztadura: 143-145.
  - gobernua: 145-150.
  - hitz ordena: 150-158.
- Euskararen antzinako ezaugarriak: 158-162.
- Hitzatzea: 162-163.

## 2.2. Ezaugarri orokorrak

Darrigolen gramatikak zenbait ezaugarri orokor ditu; aipagarrienak, nire ustez, hiru puntutan bil daitezke. Lehenengo eta behin, Darrigolen lanaren azpian den helburua ikuspegi logiko eta filosofiko batetik euskararen perfektioa eta antzinasuna frogatzea da. Jakina, halako xede bat ez zen berria, XVII. mendeaz geroztik euskal apologista askok defendatu baitzuten, bereziki toponimoen etimologietan oinarriturik (ik., esaterako, Tovar 1980). Geroago, XVIII. mendean Larramendik eta XIX. mende hasieran Astarloak, besteak beste, izen arrunten hainbat etimologia ere erabili zituzten. Astarloak eta Darrigolek berak, bestalde, gramatika orokorrari jarraitu zioten. Eta, haren eraginez, bi autoreok euskara hizkuntza filosofikoena, logikoena eta naturalena dela aldarrikatu zuten.<sup>6</sup>

<sup>6</sup> «Natural» terminoak Astarloaren idatzietan duen adierari buruz, ik. Gómez (1999, 2004, 2007).

Bigarrenik, Darrigolek hitzez hitzeko aipamen franko biltzen ditu bere gramatikan. Gehienetan erabiltzen dituen egileak du Marsais,<sup>7</sup> Beauzée<sup>8</sup> eta Court de Gébelin<sup>9</sup> dira. Hala ere, Darrigolen iturri nagusietariko bat Girard<sup>10</sup> izan zen. Ez dirudi lekuz kanpoko ahartarazten badut euskal gramatika-tradizio zaharrear honako hitzez hitzeko aipamenak oso gutxitan aurki ditzakegula.

Azkenik, Darrigolen liburuan morfologiari ematen zaion leku nabaria azpimarratu nahi nuke. 162 orrialdeetatik 127 eskaintzen zaizkio morfologiari. Ene irudiko, bi arrazoi desberdin proposa daitezke gramatikaren atal honi emandako maila gorena ulertzeko. Batetik, «tradiziozko» gramatikak deitu izan direnek<sup>11</sup> perpaus-atalen sailkapena eta banaketa izan dute xede nagusia. Bestetik, egia esan, euskal gramatikaren osagai bereziena eta deigarriena morfologia da, aditz morfologia batik bat.

### 3. Darrigolen gramatikaren zenbait gai

Hurrengo lerroetan, Darrigolek darabiltzan zenbait puntu interesgarri buruz jardungo dut laburki eta, aurreko zein ondoko euskal gramatikarien proposamenekin lotuko ditut, ahal den neurrian behintzat.

#### 3.1. Erroak eta kategoriak

Beheko pasartean ikus daitekeenez, Darrigolek azpimarratzen du euskararen jatorrizko erroak, gramatikaz den bezainbatean, zehaztugabeak direla eta euskarak gramatika-kategoriak atzizkien bitartez bereizten dituela, hizkuntza filosofiko eta logiko bati dagokion legez:

---

<sup>7</sup> César Chesneu du Marsais, edo Dumarsais, (1676-1756) tutore eta irakasle gisa aritu zen Parisen, inoiz egoera ekonomiko lasaia erdietsi ez bazuen ere. *Nouvelle Méthode pour apprendre la langue latine* (1722) eta, batik bat, *Traité des tropes* (1730) kaleratu ondoren, d'Alembertek *Entziklopedian* parte har zezan eskatu zion eta, hala, gramatikari buruzko artikulu guztiak idatzi zituen, hil arte. Bestalde, logikaz eta politikaz ere arduratu zen, ideia arrazionalistak eta erlijioaren kontrakoak aldarrikatu zituelarik.

<sup>8</sup> Nicolas Beauzée (1717-1789) gramatikari eta itzultzailea izan zen. 1756tik aurrera, du Marsais hildakoan, *Entziklopedian* hizkuntzaren inguruko artikuluak idaztea hartu zuen bere gain. Hala ere, bere lan nagusia *Grammaire générale* (1767) izan zen, garai hartan arrakasta handia lortu zuena (ik. Bartlett 1975). *École Royale militaire* sortu berrian irakasle izan zen.

<sup>9</sup> Antoine Court de Gébelin (1725-1784) artzain protestantea izan zen, baina laster bertan behera utzi zuen bizibide hori idazteari ekiteko. *Le Monde primitif*flan mardularen lehen liburukia 1773an argitaratu zuen eta bederatzigarrena, 1782an, bukatu gabe geratu zelarrik. Bertan gizakien jatorrizko zibilizazioa berreraikitzen ahalegindu zen, bereziki hizkuntza eta mitologia aztertuz, baina aldi berean kutsu esoterikoa erabiliz; esaterako, Tarotari buruzko lehen azterketa egin zuen. 1771tik framazona izaki, artean Amerikako Estatu Batuen enbaxadorea zen Benjamin Franklin ezagutu zuen eta herri haren independentziaren alde jardun zuen.

<sup>10</sup> Gabriel Girard (1677-1748) abadea poliglota, filologo eta gramatikari ospetsua izan zen. Gainera, Frantziako erregearentzat hizkuntza eslaviarren interpretari gisa lan egin zuen. *La Justesse de la langue françoise* (1718) eta *Les vrais principes de la langue françoise* (1747) izan ziren bere lanik ezagunenak. Lehenengoan sinonimiaren teoria bat sortu zuen eta bigarrenari esker hizkuntz tipologiaren aitzindaritzat hartu da.

<sup>11</sup> Deitura honen inguruko zalantzez eta gorabeheretz, ik., besteak beste, Sarmiento (1996) eta Lliteras (1998).

Le mot primitif est à tous les mots qui en dérivent ce que le genre est à ses espèces; il entre donc dans l'idée de ce mot de présenter un sens qui conserve l'indétermination propre du genre: de là tout mot primitif doit être un mot infinitif dans toute la force du terme, c'est-à-dire un mot d'un sens étendu et indéfini quant à l'espèce. [...] La marche de notre langue en ce point dénote plus de philosophie [hebreerarenak baino — R.G.]. En effet, comment procède la rigoureuse logique pour donner une définition, pour transmettre les notions les plus exactes possibles sur l'espèce qu'elle se propose de faire connaître? D'abord elle signale le genre, c'est-à-dire qu'elle commence par appeler l'attention sur une classe étendue, contenant l'espèce dont il s'agit. Elle propose ensuite la différence qui fixe l'esprit à l'espèce subalterne qu'elle avait pour but de faire connaître. Or voilà justement la marche constante de notre langue: elle pose d'abord le mot primitif, qui est un genre; et l'accompagne immédiatement d'une désinence ou d'une inflexion, qui est une véritable différence logique, et qui détermine l'espèce grammaticale du mot, en particularisant sa signification. (Darrigol 1827: 18-19)

Zenbait urte lehenago, Humboldtek euskal erro zaharren gramatika-kategoriarik eza aipatu zuen eta orobatsu egingo zuen Mitxelenak hurrengo mendean (ik. Gómez 1996).

### 3.2. Mugagabea

Darrigolen iritziz, mugagabea (*indéfini*) numerorik ezari edo numeroaren abstrakzioari legokioke (1827: 44). Izan ere, Darrigolek uste du artikulua numero-markak direla<sup>12</sup> eta, beraz, mugagabeari dagokiona artikulurik ez agertzea dela:

L'article étant ce qui détermine le nombre, son indétermination résulte évidemment de l'absence de ce même article, de l'absence des sons *a*, *e*, qui, en effet, n'entrent jamais dans la place de l'indéfini consacrée à l'article, immédiatement après les radicales *handi* et autres de même nature. (Darrigol 1827: 71-72)

Ohar bedi Darrigolen ustez singularraren ezaugarria *a* dela eta pluralarena *e*, deklinabidearen paradigmek halaxe erakusten baitiote: «Comme le singulier est caractérisé par un *a*, le pluriel l'est par un *e* pris dans le nominatif actif, lequel par cela même doit être envisagé comme formatif de tous les cas pluriels» (1827: 71).

<sup>12</sup> Beste pasarte batean argiago azaltzen du, Court de Gébelinen hitzak ere ekarriz, artikulua determinatzailetzat hartzen duen ikuspegia: «Comme les noms communs ne désignent les êtres, selon la doctrine des grammairiens, que par l'idée générale d'une nature commune à plusieurs, toutes les fois que nous avons occasion d'employer ces noms d'espèces, nous sommes obligés, sous peine de n'être point entendus, de les accompagner de quelque mot qui les tire de leur généralité, et les détermine à être l'indice de l'objet précis que nous voulons peindre; en sorte qu'on les reconnaisse à l'instant aussi sûrement que si nous les montrions de la main. Tel est l'usage de l'article; il détermine, comme par le geste, entre plusieurs objets auxquels convient le même nom, celui que nous avons en vue (t). [(t) Gébelin, Gramm. univ. liv. 2., part. 2., chap. 2.]» (Darrigol 1827: 77-78).

Beste alde batetik, Darrigolek absolutibo mugagabea (adib. *zenbait asto*) eta erro soila (adib. *asto handia*) nahasten ditu.<sup>13</sup> Baina egiazki lehenbizikoan *asto* izenari - $\emptyset$  morfemak jarraitzen dio; bigarrenean, aldiz, izenak ez du inolako flexio-markarik, absolutiboaren eta numeroaren markak, ohi bezala, izen sintagmaren amaieran agertzen baitira. Darrigol (1827: 44, 70) harritzen da aurreko gramatikariak ez zirelako mugagabeaz ohartu, edo ohartu baziren ez zutelako aintzat hartu. Baina, aitzitik, paradigma mugagabearen berri eman zuen lehen euskalaria Oihenart (1638/1656) izan zen, aurreko paragrafoan aipatutako bi formak nahastu zituen arren (ik. Oyharçabal 1993: 272 eta Gómez 2001).<sup>14</sup> Bestalde, XIX. mende hasieran Astarloak (1803, 1883) eta Humboldt (1817) mugagabea bereizi zuten eta, era berean, aurreko bi formen arteko diferentziaz ere ohartu ziren, azkenekoz.<sup>15</sup>

### 3.3. Kasuak eta preposizioak

Darrigol ederki konturatu zen hizkuntza baten sisteman kasuek eta preposizioek zeregin berbera betetzen dutela, Beauzée-rengandik (1767) jaso zuen ideia alegia; izan ere, hala kasuek nola preposizioek balio baitute izakien arteko erlazioak adierazteko. Darrigolek hizkuntzek izakien arteko erlazioak adierazteko erabiltzen dituzten bide desberdinak aztertzen ditu. Bere ondorioen arabera, euskara erlazio guzti-guztiak adierazteko kasuez baliatzen den hizkuntza da, Estarac-en hitzak aldatuz adierazten duen bezala:<sup>16</sup>

«...la langue basque est absolument sans prépositions, et exprime par des terminaisons différentes, qui sont de vrais cas, tous les rapports qu'on désigne ailleurs par des prépositions (i).» [(i) Estarac, *Gramm. gén.*, tom. 1., pag. 442 et suiv.]. (Darrigol 1827: 58)

Aurreko euskal gramatikari gehienak —Oihenart (1638/1656), Mikoleta (1653), Urte (1712), Larramendi (1729)— latinaren ereduari atxiki zitzaizkion, mende haietako Europako gramatikagintza tradizioan ohi bezala. Hau dela-eta, nola edo hala, latinaren sei kasuko paradigma agertzen zaigu behin eta berriz lehen euskal gramatiketan. Hala, euskararen zenbait atzizki kasu-sistema batean antolatu zituzten, eskuarki latindar deklinabidearekin bat zetozenak, eta gainerako atzizkiak preposiziotzat edo postposiziotzat hartu zituzten, edota adberbioekin lotu.

<sup>13</sup> Cf. esaterako, ondoko pasarte hau: «Le pruriel se forme du nom indéfini, en y ajoutant la terminaison *ac*, s'il s'agit d'en faire un simple nominatif pluriel; et la terminaison *ec*, pour un nom pluriel qui soit le sujet du verbe actif» (Darrigol 1827: 55). Cf. orobat Darrigol (1827: 144).

<sup>14</sup> Jakina, Oihenartek ez Darrigolek ez zuten *izen sintagma* kontzeptua ezagutzen. Izan ere, sintagmaren inguruko gogoetak XX. mende hasierako estrukturalismoarekin abiatu ziren (cf. Lauwers 2004). Puntu honetan Larramendiren deskribapena egokixeagoa suertatu zen, andoaindarrak artikulaz zuen ikuspegia lagun (cf. Gómez 2001).

<sup>15</sup> Bien bitartean geratuko litzateke Larramendi. Gramatikari hau ez zen mugagabeaz ohartu, eredu latindarrak eskaintzen zizkion singularra eta plurala bakarririk aintzat hartu baitzituen; alabaina, bidenabar bederen, euskal IS konplexuen flexioa aski ongi azaldu zuen, artikuluari buruz zuen ikuspegiari esker (ik. Gómez 2001).

<sup>16</sup> Auguste François Estarac-ek *Grammaire générale* argitaratu zuen bi liburukitan (Paris: Nicolle, 1811).

Baina XIX. mendean, batetik gramatika orokorraren eraginez (Humboldt) eta, aldi berean, helburu apologetiko batek gidaturik (Astarloa), latinarekiko morrontza salatu zen eta bestelako bideak bilatu ziren. Irtenbide bat kasuak —edo Astarloarentzat «artikuluak»; ik. Gómez (2001)— eta postposizioak hertsiki bereiztea izan zen,<sup>17</sup> Astarloak (1803, 1883), Humboldték (1817), Léclosurek (1826) eta geroago van Eysek (1867) hartu zuten bidea.<sup>18</sup> Baina beste bide bat kasuen zerrenda luzatzea izan zen, atzizki bakoitzari nolabait kasu berezi bat egokituz, hau da, irizpide morfologiko bati jarraituz.<sup>19</sup> Horixe izan zen Darrigolen ikuspegia.<sup>20</sup>

Deklinabideari buruzko ideiei dagokienez behinik behin, Darrigolen iturria Beauzée izan zen (Darrigol 1827: 66). Beauzée latinaren ereduaren mugak agerian utzi zituen, hizkuntza baten kasu-sistema gainerakoien sistemetan bortxaz islatzeko ohitura kritikatu. Horretarako, kasu-kopuru handia duten hizkuntza batzuen kasu-paradigmak aurkeztu zituen, hala nola euskara, kitxua eta laponiera. Darrigolek Beauzéeeren hitzak gogorarazten ditu eta euskarari aplikatzen dizkio, euskal deklinabidea azaltzeko ordu arte egindako latindar sistemaren hedapenak arbuiatzen dituelarik (Darrigol 1827: 66-68).

Abiapuntu gisa, hamabost kasu —eta zalantzazko hiru— aurkezten ditu, oraingoz izenik gabe. Hiru paradigma aurkezten ditu: mugagabea, singularra eta plurala. Gorago adierazi dudanez, singularraren ezaugarria *-a* dela esaten du, artikulua alegia;<sup>21</sup> pluralarena *-e*, eta mugagabearena, artikulurik eza. Horregatik, kasua bat bera da, numeroa edozein delarik ere. Hurrengo taulan paradigma mugagabea digu, adibide gisa:

<sup>17</sup> Oihenartek ere kasuak eta postposizioak nolabait berezi zituen, azken hauek adberbio eta juntagailuekin batera «deklinaezinen» barruan sailkatuz (Oihenart 1656: 71-72); alabaina, latindar erudari atxikirik aritu zenez, zerrendatik kanpo utzi dut. Nolanahi ere den, Oyharçabalek (1993: 276-278) ongi ohartarazten duenez, Oihenartek postposizioak (*ra, tic, co, tara, taric, tacho*) deklinabide paradigmatan ez sartzeko arrazoi nagusia ez bide da, besterik gabe, latinaren sei kasuko eskemari eustea. Aitzitik, postposiziotzat hartzen dituenak halakorzat dauzka beraietan ez duelako aurkitzen deklinabide-kasuek duten artikuludun/artikulugabe bereizketarik. Hau da, Oihenart gogor atxikitzen zaio bere irizpide morfologikoari: bi deklinabide paradigma berezi ditu, artikuluduna eta artikulugabea; postposiziotzat hartu dituen atzizkietan halakorik ez dagoenez, ez dira kasuak.

<sup>18</sup> Astarloaz, ik. Alberdi (1989) eta Gómez (2002c); Humboldték, ik. Alberdi (1989) eta Gómez (1996); van Eysi buruz, ik. Sarasola (1989) eta Gómez (2002b).

<sup>19</sup> Bide beretik joko zuten Chahok (1836), Bonapartek (1869) eta geroko euskalari gehienek. Badago, halere, jarrera honen aitzindari bat: Harriet (1741). Hausnarketa teoriko handirik gabe, Harrietek hamaika kasu berezi zituen, baina ez zien izenik eman. Hala ere, liburuaren bukaera aldera (1741: 505-506), Harrietek bere jokabidea justifikatzen du, euskara latinarekin eta frantsesarekin parekatuz gero bere berezitasunak aurkezten dituelako.

<sup>20</sup> Aurreko lerroetan datzan sailkapena Antoine Abbadieri zor zaio (1836) eta Oyharçabalek jaso du (1998: 442). Abbadiek Darrigolen azterketa onartzen du, bereziki mugagabearen berri ematen duelako (Abbadie 1836: 37).

<sup>21</sup> Lekuzko kasuek agertutako salbuespenak aintzat hartzen ditu, nahiz eta erabilerak eragindako galera bati egotzi: «excepte les quatre dernières terminaisons, où l'on trouve *handico* et non *handiaco*, *handitic* et non *handiatic*, &c.; l'usage ayant ainsi prévalu contre l'analogie, mais toujours sans danger de confusion, parce que l'indéfini prend en cet endroit le caractéristique *ta*, qui le distingue du singulier» (Darrigol 1827: 71). Bidenabar, urte batzuk geroago Belsunce (1858) «bere onera» itzuli nahi izan zituen salbuespenok, bere paradigmatan Darrigolek aipatutako *handiaco*, *handiatic*, etab. sartu zituelarik (ik. Mounole 2003).

## INDÉFINI.

1.	<i>Handi</i>	grand, grande.
2.	<i>Handic</i>	grand, grande.
3.	<i>Handiz</i>	de grand, de grande.
4.	<i>Handitan</i>	dans, en.
5.	<i>Handiri</i>	à.
6.	<i>Handiren</i>	de.
7.	<i>Handirentzat</i>	pour.
8.	<i>Handiren-gatic</i>	malgré, pour.
9.	<i>Handiren-ganic</i>	du côté, de la part de.
10.	<i>Handiren-ganat</i>	vers.
11.	<i>Handirekin</i>	avec.
12.	<i>Handitaco</i>	pour.
13.	<i>Handitaric</i>	de.
14.	<i>Handitara.</i>	à.
15,	<i>Handitara-dino</i>	jusques à
	<i>Handica</i>	par.
	<i>Handiric</i>	de.
	<i>Handitzat</i>	pour.

(Darrigol 1827: 68-69)

Aipagarria da *-gan* atzizkiari legokiokeen kasua ez agertzea, ezta singularreko eta pluraleko paradigmekin ere; seguruenik, Darrigolen euskalkian *-gan* atzizkia ez zen (*baithan* edo *-tan* erabiltzen baitzuen, ik. 1827: 76-83), baina bai *-ganik* eta *-ganat*.<sup>22</sup> Bestalde, arrazoi desberdinak direla kausa, Darrigolek goiko «kasu» batzuk zerrendatik kentzea erabakitzen du:

- ka*, *-rik* eta *-tzat*. hasiera-hasieratik zalantzak ditu ea paradigmekin sartu behar ote diren, eta horrexegatik erabakitzen du lehen zerrendan zenbakirik gabe aurkeztea (Darrigol 1827: 71), hurrengoetan agertuko ez direlarik.
- Bizidunen kasuetarako etimologia bat proposatzen du: *-ganik*, *-gatic* < *gaine-tic*, *gaintik* edo *gaitik*; *-ganat* < *gainerat*.<sup>23</sup> Hortaz, ez lirakeke kasu bereziak izango, baizik eta hitz bat gehi *-ik* edo *-at* hondarkiak (1827: 73-74).
15. zenbakian agertzen den *-(d)ino* atzizkia ere zerrendatik kanpo uztea erabakitzen du, goikoaren (hots, egungo adlatiboaren) aldaera delakoan. Honentzako etimologia ere badu: *den-oro* (1827: 74).
- Azkenik, frantsesez 'pour' esanahia duten bi atzizkiak, *-ko* eta *-entzat*, gaur banaketa osagarria esango genukeen egoeran ikusten ditu, alegia, lehena bizi-gabeekin eta bigarrena bizidunekin erabiltzen da. Hau dela-eta, biak kutxatila berean sartuko ditu (1827: 72, 74).

Honen guztiaren ondorioz, jarraian hamar kasuko paradigmak proposatzen ditu, oraingoa deiturak eta guzti. Hona haietariko lehena:

<sup>22</sup> B. Oyharçabali (ahozko ad.) zor diot falta horren arrazoiak ohartu izana.

<sup>23</sup> Nabarmentzekoa da Traskek (1997) ere *gain*-etik eratortzen dituela bizidunen lekuzko kasuak.



## INDÉFINI.

Nominatif	<i>mendi</i>	montagne.
Actif	<i>mendic</i>	montagne.
Médiatif	<i>mendiz</i>	de, par montagne.
Positif	<i>menditan</i>	dans.
Datif	<i>mendiri</i>	à.
Génitif	<i>mendiren</i>	de.
Unitif	<i>mendirekin</i>	avec.
Destinatif	<i>menditaco</i>	pour.
Ablatif	<i>menditaric</i>	de.
Approximatif	<i>menditarat</i>	à, vers.

(Darrigol 1827: 75)

Darrigolek zenbait paradigma eskaintzen ditu numero guztietan: izen biziga-beak (*mendi*), bizidunak (*seme*)<sup>24</sup> eta bereziak (*Joanes, Maria*, hauek mugagabeen soilik agertzen direlarik, jakina: «avec abstraction de tout nombre» [1827: 78]). Kasuen deiturei buruzko hausnarketa egiten du:

- Latinaren sei kasuetarik lau agertzen dira euskaran (*nominatiboa, datiboa, ablatiboa* eta *genitiboa*). «Genitiboa» dela-eta, hala ere, Darrigolek zalantzan jartzen du ea deitura egokia den, dituen funtzio desberdinak besarkatzeko.
- Euskaraz ez dago akusatiborik, subjektu aktiboak flexio berezia duelako.
- Orobat ez dago bokatiborik. Izan ere, bokatiboa erretorikari dagokio, ez gramatikari: ozenki edo harriduraz ahoskatutako nominatiboa baino ez da.

Azken bi oharrek Oihenarten adierazpena dakarte gogora: «Carent etiam nomina accusatiuo & vocatiuo, eorumque vicem fungitur<sup>25</sup> rectus» (Oihenart 1656: 57). Amaitzeko, proposatu dituen kasu-izen berriak justifikatzen saiatzen da:

*L'actif* est ainsi appelé, parce qu'il désigne le sujet agissant. *Le médiatif*, pris du latin *medium*, sert à exprimer le rapport *par* du milieu que l'on traverse, ou du moyen que l'on emploie. Les quatre noms restans expriment sans équivoque les rapports de position *dans*, d'union *avec*, de destination *pour*, et de mouvement *vers* [*positif, unitif, destinatif* eta *approximatif*; hurrenez hurren]. (Darrigol 1827: 80)

### 3.4. Aditza

Darrigolen aditz teoriaren helburu nagusia euskarak bi aditz besterik ez duela frogatzea da: *n(a)iz*<sup>26</sup> eta *dut*, azken buruan aditz bakar batean bil litezkeenak. Horretarako, zenbait analisi proposatu behar ditu, hala nola adizki jokatugabeak ez direla egiazko aditzak, izenkiak baizik; edo adizki trinkoak funtsean benetako aditz

<sup>24</sup> Nahiz eta paradigmaman *semean* bezalako formak onartu (Darrigol 1827: 77).

<sup>25</sup> Testuan *fungitur*.

<sup>26</sup> *Dissertation-en* zehar bi forma, *naiz* eta *niz*, txandakatzen ditu. Aurrerantzean, laburtzearen, *niz* bakarrik aipatuko dut.

baten eta aditz-oin baten biltzetik sortzen direla.<sup>27</sup> Hurrengo lerroetan, haatik, euskal aditzari dagokion beste gai bat hartu nahi nuke hizpide: denbora-sistema.

Aditz denborak banatzeko, Darrigolek aintzat hartzen du ea aditzak adierazten duen gertaera edo ekintza hizketa-unea baino lehenago, aldi berean edo ondoren paratzen den: «Une événement, confronté avec l'instant où je parle, peut se trouver, ou simultanément, ou antérieur, ou postérieur à cet instant» (Darrigol 1827: 115).

Bestalde, gertaeraren denbora hizketa-unearekin erkatuz gero, aditzak —bene-tako aditzak alegia— orainaldiko forma hartzen du: *niz*. Eta, aditz hau adizki jokatugabeekin —hots, izenkiekin— konbinatuz gero, hiru denbora lortzen dira: iraganaldia (*erori niz*), orainaldia (*erorten niz*) eta geroaldia (*erorico niz*): «Jusqu'ici nous n'avons conjugué que le présent du verbe être, mais sa combinaison avec un nom nous a donné trois temps qui répondent au prétérit, au présent et au futur» (Darrigol 1827: 115-116).

Alabaina gertaeraren denbora iragan denbora batekin ere erka daiteke eta, orduan, euskarak beste aditz-forma bat erabiltzen du, *ez-burutua* (*imparfait*) izendatu ohi dena: *nintzen*. Darrigolek adizki hau ere hiru izenkiekin konbinatu ahal dela diosku, ikusi berri dugun bezalaxe, aurrekotasuna, aldiberekotasuna eta ondokotasuna adierazteko. Nolanahi ere den, oraingoan Darrigolek zuhurrago jokatzen du eta, emaitzak izendatzeko, ez ditu ohiko hiru denboren deiturak errepikatzen: *ethortcen nintzen*, *ethorri nintzen*, *ethorrico nintzen* (1827: 117-118). Ikus dezagun hurrengo taula honetan Darrigolek proposatzen duen denbora-sistemaren laburpena:

	aurrekoa	aldiberekoa	ondokoa
orainaldia	<i>erori niz</i>	<i>erorten niz</i>	<i>erorico niz</i>
«imparfait»	<i>erori nintzen</i>	<i>erorten nintzen</i>	<i>erorico nintzen</i>

Goiko taulari erreparatzen badiogu, aise ohar gaitezke Darrigolek hizketa-unearekin erlazionatzen dituen aldaketak egungo aspektu sistemari dagozkiola: *aurrekoa* = burutua, *aldiberekoa* = ez-burutua, *ondokoa* = etorkizuna. Azkenik, honelako sistema bat «Port-Royalen Hatsarrea» deitu izan denarekin bete-betean lotzen da (cf. Calero Vaquera 1986). Frantziako arrazionalismoan sortu zen sistema honek hizketa-unearekiko erlazioa aintzat hartzen du aditz denborak sailkatzeko.<sup>28</sup> Nolanahi ere den, Darrigolen aurretik honelako sistema bat baliatu zuen lehenbiziko euskalaria Astarloa izan zen (ik. Gómez 1999).

<sup>27</sup> Darrigolen aipatu analisisiez eta gramatika orokorreko aditz bakarren teoriarekin duten loturaz, ik. Gómez (2002a).

<sup>28</sup> Fournier-ek (1991), Port-Royalen hatsarretik abiatuz, Frantziako gramatika orokorrean aspektu bereizketak nola azalerratu ziren aztertu du. Aspektu kategoria, dena dela, gramatikari estoikoek erabili bide zuten aurrenekoz, nahiz eta luze egon zen gero ahantzia. Bereziki XIX. mendearen bigarren erditik aurrera —eta hein handi batean pentsamolde eslavofiloari atxikia— hizkuntza eslaviarren ikerketan berragertu zen aspektu kategoria, mendebaldeko gramatikagintzaren moldetik aldendu nahian (Gasparov 1995). Ondoren, pixkanaka hainbat hizkuntzaren gramatiketan sartuko zen. Esate baterako, Espainiako gramatikagintzan ez zen XX. mende hasiera arte erabili, estrukturalismoaren eragina jaso ondoren hain zuzen ere (Rojo 1990).

### 3.5. Sintaxia

Entziklopedistei jarraituz (Beauzée 1767, du Marsais 1987), Darrigolek adierazten du sintaxiaren erregela guztiak bi sailetan bil daitezkeela, komunztadura (*concordance*) eta gobernua (*dépendance*): «Toutes les règles de la syntaxe se rapportent à deux classes générales, *concordance* et *dépendance*» (Darrigol 1827: 143).<sup>29</sup> Honelaxe definitzen du lehenengoa: «La *concordance* est cette portion de la syntaxe qui indique les moyens propres à faire accorder entre eux les mots qui peignent les diverses parties d'une idée» (*ibid.*).

Aurrenik, izenaren eta adjektiboaren arteko komunztaduraz dihardu. Generoari dagokionez, euskarak ez du generorik eta, hortaz, ezta genero-komunztadurarik ere. Numero eta kasu komunztadura, aldiz, «il s'entend plutôt qu'il s'exprime» (Darrigol 1827: 144). Puntu honetan, berriz ere nahasten ditu mugagabea eta erro soila. Bada, Oihenartek bezalatsu, Darrigolek maila berean jartzen ditu kasu-markarik eta numero-markarik gabeko hurrengo hitz azpimarratuak: *Emazteac icicor dire* eta *Ba-dire gicōn prestuak* (*ibid.*).

Harrigarria badirudi ere, Darrigolek ez du hemen euskararen komunztadura anizkuna aipatzen. Aldiz, aditzaren eta subjektuaren arteko komunztadura «ezaguna» besterik ez du azaltzen (Darrigol 1827: 144). Nolanahi ere den, euskarari bi berezitasun aitortzen dizkio: batetik, aditz batzuek subjektu nominatiboa hartzen dute eta beste batzuek, kasu aktiboan dagoen subjektua;<sup>30</sup> bestetik, aditzak eta objektuak numeroan egiten dute komunztadura. Baina hementxe gelditzen da, objektuaren edo objektuen pertsona-komunztaduraz hitzik ere esan gabe. Eta harrigarria dela diot, *dut* aditz aktiboaren paradigmak aurkeztean euskal aditzak erakusten dituen pertsona-konbinaketez jardun duelako, are hizkuntzaren etorki jainkotiarraren seinaleztat hartuz eta, oro har, ondoko pasartean nabari daitekeen tonu apologetikoa erabiliz:

S'il est vrai que les secrets du langage humain sont profonds; que le mécanisme du verbe en particulier présente un caractère divin dans chaque langue, nous ne craignons pas de dire que ce caractère est surtout bien marqué dans la conjugaison basque [...].

Affirmer l'influence la plus étendue qui se puisse imaginer, l'action la plus générale possible d'un sujet sur un autre, telle est la valeur première et la fonction essentielle de notre verbe actif. Renfermer en soi les pronoms tant singuliers que pluriels des trois personnes; épuiser avec un laconisme parfait toutes les combinaisons mathématiquement possibles entre les six pronoms personnels, en les présentant d'abord deux à deux, puis trois à trois; exprimer, avec une facilité qui étonne,

<sup>29</sup> Cf. esaterako: «C'est uniquement de ces principes que je tire toutes les règles de la syntaxe nécessaire, c'est-à-dire, de cette syntaxe qui est établie dans une langue pour marquer les différents rapports de concordance ou de régime que les mots entre eux, selon la liaison des idées qu'ils expriment» (du Marsais 1987 [1729]: 28).

<sup>30</sup> Cf. Oihenarten ondoko pasarte hau: «Casus *agendi* est qui verbo actiuo praemittitur vice nominatiui» (1656: 58); honen antzeko adierazpenak aurki litezke Humboldtten eta Astarloaren idatzietan ere. Aitzitik, beste zenbait gramatikariren lanetan halako bereizketa bat agertzen zaigu jada, Larramendirean (1729) kasu; baina, autore hauentzat euskararen jokabidea ez zen arazo, bi atzizkiak sartzen baitzituzten nominatiboan, latinez subjektuaren kasua zen hartan alegia.

une variété qui enchante, une rapidité d'expression que rien n'égale, toutes les attitudes ou situations respectives que peuvent prendre ces divers pronoms, *employés en sujet et en complément, en complément direct et en complément indirect*, tel est le mécanisme intéressant et la richesse singulière de ce verbe incomparable. (Darrigol 1827: 125-126; etzana nirea da)

Hala ere, susma liteke arazo hau sintaxian ez agertzeko arrazoia azpimarratu ditudan hitzetan bertan kausi daitekeela, hain zuzen. Darrigolen formulazioaren arabera, adizki aktiboan agertzen diren izenordainek berek (*klitikoek* gehituko genuke egun) betetzen dute subjektuaren, osagarri zuzenaren eta zeharkako osagarriaren funtzioa eta, beraz, ez dira adizkiak kanpoko beste deusekin komunztatzen. Hau gehienetan egia da euskara bezalako *pro-drop* hizkuntza batean; haatik, dirudienez, Darrigolek ez du aintzat hartzen perpaus batean izenordain *beteak* ere ager daitezkeela.

Gobernuari dagokionez, euskarak arazo gutxi aurkezten dituela diosku, grekoarekin edo latinarekin parekatuz gero bederen. Alde batetik, euskarak ez du preposiziorik eta, bestalde, adberbioek eta aditzek ez dute ezer gobernatzen. Arazoa arras laburtuz, hauxe da zioa: Darrigolek erakutsi nahi izan du bai adberbioak bai aditzak izenki deklinatuak baino ez direla eta, hortaz, izenak edo atributuak diren neurrian gobernatzen dute, ez adberbio edo aditz direlako. Azken batean, Darrigolen iritziz, gobernatzaile posible bakarrak izenak, izenordainak, adjektiboak eta partizipioak dira; puntu honetan Beauzéeren proposamenetatik urruntzen da, honak aditza ere sartu baitzuen (Darrigol 1827: 148).

Badu Darrigolen sintaxiak beste gai interesgarri bat, perpausaren eraikuntzari (*construction*) dagokiona alegia. Beauzéeri hartzen dion sintaxiaren definiziotik idoki daitekeenez («l'art de fixer les rangs et les formes accidentelles des mots dans l'ensemble d'une proposition» [Darrigol 1827: 142]), Darrigolek berebiziko garrantzia ematen die hitzak perpauscan lotzeko bideei. Hizkuntzen sintaxiak bi bide nagusi erabiltzen ditu: hitzen ordena edo *arrangement*, batetik, eta *formes accidentelles* direlakoak, bestetik (*ibid.*). Baina askoz markagarriagoa da Girard abadearen ildotik Darrigolek hitz ordenaren eta deklinabidearen artean egiten duen inplikazio tipologikoa. Funtsean, Darrigolek adierazten du deklinabiderik ez duten hizkuntzak mai-zago baliatzen direla ordenaz hitzen arteko erlazioak adierazteko, frantsesean gertatzen den bezala. Aitzitik, deklinabidea duten hizkuntzetan, latina eta euskara kasu, ordena ez da finkoa izaten:

Le premier moyen est la grande ressource des langues qui ne déclinent pas leurs noms. Ainsi, quand je dis, *Le père aime le fils*, le placement des mots est ce qui détermine le rapport que l'on veut établir ici entre le père et le fils; et il ne faudrait que changer cet ordre pour renverser aussi le rapport des termes, en disant, par exemple, *Le fils aime le père*. Il n'en est pas de même dans les langues qui déclinent; on ne renverserait pas le rapport de dépendance énoncé dans la proposition ci-dessus, lors même que l'on renverserait l'ordre des mots. Que l'on dise en latin, *Pater amat filium*, ou *Filium amat pater*; que l'on se dise en basque, *Aitac maite du semea*, ou *semea maite du aitac*; c'est toujours de même rapport de dépendance qui est affirmé du fils. (Darrigol 1827: 142-143)

Areago dena, Darrigolek baieztatzen du deklinabidedun hizkuntzetan hitz ordena, gramatikari barik, erretorikari dagokiola gehienbat; gustu kontua dela, eta ez

sintaxi arazoa (1827: 143).<sup>31</sup> Abiapuntu hori hartuta, Girardek proposatu zuen hizkuntzen sailkapen bitarra bere egiten du:

Tel est le fondement de la division des langues en deux espèces générales. L'abbé Girard appelle *analogues* les langues qui ont adopté une marche invariable, et *transpositives* celles qui, ayant fixé leur syntaxe par la forme des mots, ne sont pas assujetties à cette marche uniforme. (Darrigol 1827: 150)

Egia esan, Girardek hiru sail bereizi zituen (1747: 22-26):

- a. Lehen saileko hizkuntza analogoek hitzen ordena naturalari jarraitzen diote, esan nahi baita, ideien hurrenkera naturalaren arabera antolatzen dituzte hitzak perpausetan; bestalde, artikulua dute eta ez dute deklinabiderik: frantsesa, italiara eta espainiera dira Girardek emandako adibideak.
- b. Bigarren saileko hizkuntza transpositiboek, ordea, irudipenaren arabera antolatzen dituzte hitzak, baina, deklinabidea dutenez gero, anbiguotasuna eta nahasmena galarazten dira; ez dute artikulurik: latina, eslaviara zaharra («l'Esclavon») eta Moskuko errusiera.
- c. Hirugarren saileko hizkuntzek, azkenik, aurreko bien ezaugarriak biltzen dituzte eta hortik *mixte* edo *amphilogique* deiturak. Artikulua dute, baita kasuak ere: grekoa eta «Teutonique» deitzen duena, germaniera ziur asko.<sup>32</sup>

*Analogue* izenak, esan bezala, aditzera ematen du hitzen hurrenkerak ideien hurrenkera naturalari jarraitzen diola. Arazoa zen, orduan, zein ote zen ideien hurrenkera naturala. Honekin Darrigol bete-betean sartzten da Frantzia aspalditik eztabaidatzen zen hitzen ordena naturalari buruzko auzian. *Ordo naturalis* vs. *ordo artificialis* bereizketa Erdi Aroko eskolastikan sortu zen, nahiz eta haren arrastoak Halikarnasoko Dionisioenganaino ere gibeleratu daitezkeen (Ricken 1978). Alabaina Frantzia ideien inguruko hausnarketa arrazionalistek eztabaida berpiztu zuten, orduko arazo filosofikoetan erdiz erdi kokatu zelarik. Bereziki autore arrazionalistek ordena naturala frantsesaren hitz ordenari zegokiola aldeztu zuten (du Marsais, Beauzée); beste batzuek, aldiz, latinaren ordenaren alde egin zuten (Batteux, Pluche) eta, azkenik, sentsualistek (Condillac edo Court de Gébelin, kasu), hizkuntzaren eta pentsamenduaren bilakaera paraleloak nabarmenduz, hitz ordenaren auzia ikuspuntu historiko batetik aztertzea hobetsi zuten. Eztabaidan, espero zitekeenez, argudio gramatikalak gutxienak izan ziren eta laster apriorizko baieztapenei kutsu apolo-

<sup>31</sup> Cf. beste pasarte hau, non beharbada inplikazio tipologikoa argiago formulatzen den: «Les langues privées du premier moyen, celles dont les mots ne se plient pas généralement aux diverses formes de la déclinaison, sont nécessairement réduites à placer chaque mot dans la position qu'il exige pour exprimer le rapport qu'il a à telle ou telle autre partie du discours. Celles dont les éléments se plient aux formes accidentelles qui caractérisent les relations des mots, ne sont pas nécessitées à la marche uniforme des premières; elles abandonnent la construction à l'influence de l'harmonie, au feu de l'imagination, à l'intérêt, &c.» (Darrigol 1827: 150).

<sup>32</sup> Bidenabar, Girardek bazuen laugarren aukera bat gutxienez, alegia artikulurik eta kasurik ez duten ordena finkoko hizkuntzak, hala nola txinera edo vietnamera, baina badirudi Girardek ez zuela hizkuntza hauen berririk izan (Plank 2001). Girarden hizkuntz ideiez, ik. orobat Swiggers-en sarrerara (Swiggers 1982).

getiko eta nazionalistak eta frantsesen hegemonia kulturalaren inguruko tira-birak erantsi zitzaizkien (Rivarol izan daiteke honen adibide garbia).<sup>33</sup>

Court de Gébelinek ildotik *analogue* eta *transpositive* terminoen egokitasuna zalantzan jarri ondoren, Darrigolek defendatzen du bai hurrenkera finkoa, bai askea —edozein deitura ematen zaielarik ere— naturalak direla (1827: 152). Areago dena, hitz ordena finkoa baizik ez duen hizkuntza bat, nolabait esateko, osagabea izango litzateke, ez baititu naturak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzen: «tout ce qu'elle a reçu est bon dans l'ordre naturel, mais elle n'a pas reçu tout ce qui est bon dans ce même ordre» (1827: 155). Esate baterako, ordena finkoak hizketaldia- ren monotonia dakar eta ez dirudi batere egokia bihotza eta grinak hunkitu edo entzuleak konbentzitu nahi dituzten erabileretarako, hala nola abokatuen, sermolar- rien, irakasleen edo poesiaren solasetarako (1827: 156). Beste alde batetik, ez da egia ordena finkoa hizkera zientifiko eta metodikorako egokiagoa denik; izan ere, ordena askea duen hizkuntza batek, askatasun berorretaz baliatuz, hizkera meto- dikorako egokien irizten dion hitzen hurrenkera hauta dezake eta, beraz, argitasun eta zehaztasun osoz adieraz dezake solasak eskatzen duena. Ondorioz, «[c]oncluons qu'une langue à construction libre, et notamment celle qui nous intéresse le plus, possède tous les avantages des langues serviles, sans partager leurs inconvénients» (1827: 158). Azken buruan, ikuspegi honekin Darrigolek euskararen estatusa «sal- batu» nahi du, nagusiki frantsesaren hitz ordena finkoa goraipatzen zen garai ba- tean.<sup>34</sup>

#### 4. Ondorio gisa

Astarloa eta Humboldtetik batera, Darrigolek euskal gramatikagintza eredu latindarretik askatzeko lehenbiziko ahaleginak egin zituen. Ildo honetan, euskara gramatika orokor eta filosofikoaren ereduari atxikita aztertu zuen. Horregatik, se- gurki, gertatu zen bere lana Volney Saria epaitu zuen Batzordearen gustuko. Hor- tatz, Darrigolen *Dissertation critique et apologetique sur la langue basque* lanaren edu- kiari so eginez gero, aise ohartzen gara euskal gramatika-tradizioan aurki daitekeen Frantziako arrazionalismoaren eta entziklopedismoaren eraginik garbientakoa du- gula. Euskal gramatikaren barneko ekarpenei bagagozkie, aipagarriak dira, besteak

<sup>33</sup> Hitz ordena naturalaren inguruko eztabaidaren azterketa onak Delesalle (1986) eta, batez ere, Ricken (1978) lanetan aurki daitezke.

<sup>34</sup> Frantsesaren hitz ordena naturalaren kritika nagusia Condillacen filosofia sentsualistatik eta ha- ren ikuspegi historikotik etorri zen (Ricken 1978: 100). Kasurako, Condillacen ideien barruan koka- tzen da Dominique-Joseph Garatek Rivarolen diskurtsoari egindako iruzkina (Garat 1785; ik. Ricken 1978: 161-165), non ideologo lapurtarrak hitz ordena finkoaren usteko abantaileri pentsamenduen hurrenkera egokia eta hitzen hautapen zuzena kontrajartzen dizkien: «C'est que peut-être la clarté ne vient pas plus de l'ordre direct que l'obscurité des inversions. Des idées bien déterminées, bien ordon- nées, rendues ou avec le mot propre ou avec le mot qui fait une image juste, seront claires dans toutes les langues; et dans toutes les langues on sera obscur avec des idées vagues, des phrases mal construites, des mots impropres et de fausses images [...] L'ordre direct est, dit-on, très favorable à la clarté; il se- rait plus vrai de dire que la clarté est très nécessaire à l'ordre direct» (Garat 1785, *apud* Ricken 1978: 165). Hegoaldeari dagokionez, Astarloaren sintaxia koka genezake filosofia sentsualistaren ildotik (cf. Hidalgo 1995 eta Gómez 2007b).

beste, hitzen erroari emandako garrantzia, deklinabide paradigmetan mugagabea aintzat hartzea (lehen a izan ez bazen ere), aditz denboren sailkapenak aspektu-be-reizketarako bidea ireki izana, edo euskal hitz ordenaren eta egoera pragmatikoen artean sumatu zuen erlazioa.

Beste alde batetik, Darrigolen gramatikaren eragina ez da oraino behar bezala aztertu, batere txikia ez izanagatik. Adibide batzuk eskaintzearen, argi dago Chaho Darrigolengan oinarritu zela bere laneko deklinabide-paradigmak eratzerakoan. Halaber, Belsunceren gramatikak Darrigol eta Chaho ditu iturri nagusiak, hain zu-zen. Azkenik, ezin da ahantzi Darrigolekin abiatzen direla euskalaritzan aditz ba-karraren teoriaren formulazioak (Gómez 2002a).

### Bibliografia

- Abbadie, A. Th., 1836, «Prolegomènes», in Abbadie & Chaho 1836, 1-50.  
 — & J. A. Chaho, 1836, *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: A. Bertrand.  
 Alberdi, J., 1989, «Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako», *ASJU* 23:2. 411-434. [Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 67-90.]  
 Anderson, J. [M.], 1973, *An Essay Concerning Aspect: Some Considerations of a General Character Arising from the Abbe Darrigol's Analysis of the Basque Verb*. The Hague/Paris: Mouton.  
 Astarloa, P. P., 1803, *Apología de la lengua bascongada, ó ensayo crítico filosófico de su perfeccion y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta á los reparos propuestos en el Diccionario geográfico histórico de España, tomo ii, palabra Nabarra*. Madril: G. Ortega. Bigarren argit. P. Velasco, Bilbo, 1882. Lehenaren berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1983. Idem. Valentzia: Librerías «París-Valencia», 1993.  
 —, 1883 [1805], *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Bilbo: P. Velasco. [Berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1988.]  
 Bartlett, B. E., 1975, *Beauzée's Grammaire générale: Theory and methodology*. The Hague: Mouton.  
 Beauzée, N., 1767, *Grammaire générale, ou Exposition raisonnée des éléments nécessaires du langage, pour servir de fondement à l'étude de toutes les langues*. Paris: J. Barbou. [Berrargit. faksim. Stuttgart/Bad Canstatt: Frommann/Holzboog, 1974.]  
 Belsunce, Vicomte de, 1858, *Tableau analytique et grammatical de la langue Basque*. (Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorra: ADN m/s B-6). Iruñea: eskuizkribu argitaragabea. Ik. Mounole (2003).  
 Bonaparte, L.-L., 1869, *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara*. Londres: Strangeways & Walden. [Berrargit. faksim. Bonaparte 1992, I, 175-442.]  
 —, 1992, *Opera Omnia Vasconice*. J. A. Arana Martija (arg.). Bilbo: Euskaltzaindia. 4 lib.  
 Calero Vaquera, M.<sup>a</sup> L., 1986, *Historia de la gramática española (1847-1920)*. De A. Bello a R. Lenz. Madril: Gredos.  
 Chaho, J. A., 1836, «Grammaire euskarienne», in Abbadie & Chaho 1836, 1-184 [51-234].  
 Darrigol, J.-P., s.d. [1827], *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet.  
 —, 1833 [1828], *Analyse raisonnée du Système Grammatical de la langue Basque*. Paris, Bibliothèque Nationale. [Antoine d'Abbadiek eginiko kopia da.]  
 Dassance, L., 1922, «L'Abbé Darrigol et le Prix Volney de 1829», *GH* 2.557-565.

- Dassance, P., 1842, «Darrigol», in L.-G. Michaud (arg.), *Biographie Universelle (Michaud) ancienne et moderne. Nouvelle édition*, X. lib., 141-142. Paris.
- Delesalle, S., 1986, «La problématique de l'ordre des mots, 1750-1850», in S. Delesalle & J.-C. Chevalier (arg.), *La linguistique, la grammaire et l'école, 1750-1914*, 37-77. Paris: A. Colin.
- Fournier, J.-M., 1991, «L'émergence des catégories aspectuelles dans la grammaire générale de Port-Royal à Beauzée», *HEL* 13:2.111-130.
- Garat, D.-J., 1785, «[Rivarol 1784ren iruzkina]». *Mercure de France* 10:34.63-73.
- Gasparov, B., 1995, «La linguistique slavophile», *HEL* 17:2.125-145.
- Girard, G., 1747. *Les Vrais Principes de la Langue française*. Paris: Le Breton. [Berrargit. fak-sim. P. Swiggers-en sarrera batekin, Genève/Paris: Droz, 1982.]
- Gómez, R., 1996, «La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca», *RIEV* 41:2.607-622.
- , 1999, «El verbo en movimiento: una teoría sobre el verbo vasco de comienzos del XIX», in M. Fernández, F. García & N. Vázquez (arg.), *Actas del I Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, 347-360. Madrid: Arco/Libros.
- , 2001, «Artículo y «artículo» en la tradición gramatical vasca», in M. Maquieira, M<sup>a</sup> D. Martínez Gavilán & M. Villayandre (arg.), *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística. León, 2-5 de marzo de 1999*, 465-478. Madrid: Arco/Libros.
- , 2002a, «La teoría del 'verbo único' en la gramaticografía vasca del s. XIX», in M. Á. Esparza, B. Fernández & H.-J. Niederehe (arg.), *SEHL 2001. Estudios de Historiografía Lingüística. Actas del III Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística. Vigo, 7-10 de febrero de 2001. Tomo I: Gramaticografía*, 179-196. Hamburgo: H. Buske.
- , 2002b, «Los inicios de la vascolología en Holanda: El *Essai de grammaire de la langue basque* de Willem J. van Eys (1865, 1867)», in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta: Feitschcrift for Rudolf P. G. De Rijk*, 277-298. Bilbo: UPV-EHU.
- , 2002c, «Astarloaren ekarpena euskal gramatikaren ikerketetan», *Euskera* 47:2.857-867.
- , 2003, «Lau gramatika eta sari bat», in J. Gorrochategui (arg.), *Basque and (Paleo)Hispanic Studies in the wake of Michelena's work. Proceedings of the First Conference of the Koldo Mitxelena Chair*, 389-404. ('Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak, 3). Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU.
- 2004, «Astarloaren *Discursos filosóficos*: iturriak eta axiomak», *Lapurdum* 9.117-133.
- 2007a, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. Bilbo: UPV-EHU.
- 2007b, «Astarloaren sintaxia eta hitz ordena naturala», Vitoria-Gasteiz: Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarrean aurkeztutako komunikazio argitaragabea.
- & J. A. Lakarra (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*. (ASJU-ren gehigarriak, 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/UPV-EHU.
- & F. Plank, 1995, «L'Abée Darrigol: Basque and Typology». Vitoria-Gasteiz/Konstanz. *ALT Inaugural Meeting / Koldo Mitxelena I. Jardunaldiak* biltzarrean aurkeztutako komunikazio argitaragabea.
- Harriet, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- Hidalgo, B., 1995, *Hitzen ordena euskarz*. Vitoria-Gasteiz: EHUko doktorego tesia. Interneten eskuragarri: <[http://www.inguma.org/tesiak/Hidalgo\\_Eizagirre\\_1995.pdf](http://www.inguma.org/tesiak/Hidalgo_Eizagirre_1995.pdf)>.
- Humboldt, W. von, 1817, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschmitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*. Berlin: Vossischen Buchhandlung. [Gazt. itz.: Gárate, J., 1933-34, «Correcciones y adiciones a la 1<sup>a</sup> Sec-



- ción del segundo volumen de la obra intitulada el *Mithridates* sobre la Lengua Cantábrica ó Vasca por Guillermo de Humboldt en Berlín año de 1817, en la Librería de Voss». *RIEV* 24:460-487; 25:87-126.]
- Lakarra, J. A., 1987, «Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren historiako lanabesak (I)», *ASJU* 21:3.813-916.
- , & B. Urgell, 1988, «Lécluseren hiztegia. Euskalaritzaren historiako lanabesak (II)», *ASJU* 22:1.99-211.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villagorde. [Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979.]
- Lécluse, F., 1826, *Manuel de la langue basque*. Tolosa/Baiona: J. M. Doulaudoure/ L. M. Cluzeau. [Berrargit. in Lakarra 1987 eta Lakarra & Urgell 1988.]
- Lliteras, M., 1998, «Sobre la llamada «gramática tradicional» de la lengua española», in C. Hernández Alonso (arg.), *Homenaje al profesor Emilio Alarcos García en el centenario de su nacimiento, 1895-1995*, 357-366. Valladolid: Junta de Castilla y León/Universidad de Valladolid.
- du Marsais, C. Ch., 1879, *Les Véritables Principes de la Grammaire et autres textes, 1729-1756*. Tours: Fayard.
- Mikoleta, R., [1653], *Modo breue de aprender la lengua bizcayna*. (British Museum: Harl. 6314) Londres. Ik. Zelaia (1995).
- Mounole, C., 2003, *C.H. de Belsunce bizkondea: Tableau analytique et grammatical de la langue basque (1858). Azterketa eta edizioa*. (Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta, V). Donostia/Bilbo: Guipuzkoako Foru Aldundia/EHU, (=ASJU 37:2).
- Oihenart, A., 1638/1656, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*. Paris: S. Cramoisy. [2. argit. gehitua, 1656. Gazt. itz., 2. argit.-ean oinarritua eta J. Gorosterratzuk moldatua, *RIEV* 17 (1926); 18 (1927); 19 (1928). Berrargit. faksim. Gorosterratzuren itzulpen osatuarekin eta R. Ciérvideren sarrerarekin, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992.]
- Oyharçabal, B., 1993, «Les premières analyses des particularités morphosyntaxiques du basque au 17ème siècle», *ASJU* 27:1.265-284.
- , 1998, «A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza», in Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia. *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohizko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra. (Hendaye-Sare 1997)*, 431-451. Hendaia/Bilbo: Eusko Ikaskuntza/Euskaltzaindia.
- Plank, F., 2001, «Typology by the end of the 18th century», in S. Auroux *et alii* (arg.), *History of the Language Sciences. An International Handbook on the Evolution of the Study of Language from the Beginnings to the Present*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Ricken, U., 1978, *Grammaire et philosophie au siècles lumières. Controverses sur l'ordre naturel et la clarté du française*. Lille: Université de Lille III.
- Rivarol, A. de, 1784, *L'universalité de la langue française*. Berlin/Paris: Bailly/Dessene. [Berrargit. Paris: Obsidiane, 1991 eta J. Dutourd (arg.), Paris: Arléa, 1991.]
- Rojo, G., 1990, «Relaciones entre temporalidad y aspecto en el verbo español», in I. Bosque (arg.), *Tiempo y aspecto en español*, 17-43. Madril: Cátedra.
- Sarasola, I., 1989, «Van Eysen gramatika-lanak». *ASJU* 23:1.87-94. [Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 467-474.]
- Sarmiento, R., 1996, «Tres modelos de gramática tradicional en España», in K. Dutz & H.-J. Niederehe (arg.), *Theorie und Rekonstruktion*, 25-53. Münster: Nodus.
- Swiggers, P., 1982, «Introduction», in Girard 1982 [1747], 11-73.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madril: Alianza Editorial.
- Trask, R. L., 1997, *The History of Basque*. Londres/New York: Routledge.

- Urte, P., [1712], *Grammaire Cantabrique Basque*. W. Webster-en arg., *Bulletin de la Société Ramond*. Bagnères-de-Bigorre: D. Barot, 1896-1900.
- van Eys, W. J., 1867, *Essai de grammaire de la langue basque. Deuxième édition revue et augmentée*. Amsterdam: C. M. van Gogh.
- Vinson, J., 1868, «Coup d'oeil sur l'étude de la langue basque», *RLPhC* 1.381-405. [Aipuak separatari dagozkio: Paris, 1868.]
- , 1891-98, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisonneuve. [Berrargit. faksim. liburuki bakarrean, J. Urquijoren oharrekin eta K. Mitxelenaren sarrerarekin (ASJU-ren gehigarriak, 9). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984.]
- Zelaieta, A. (arg.), 1995, *Rafael Mikoletaren era llaburra*. Bilbo: AEK.